 LIZARTZAKO UDALA	LIZARTZAKO ARAU SUBSIDIARIOEN BERRIKUSPENA- TESTU BATERATUA-		FITXAK IRUNTZIALDEA
	2007KO OTSAILA	A.7	

A.7. EREMUA – IRUNTZIALDEA

a) Deskribapena

Gi-2135 (lehen N-130) errepidearen alboan, Lizartzatik Tolosara bidean, Altzoko muga, ibaiaren ezker aldean kokatzen da eremua. Lehengo arauetan lurzoru hiritargarri modura sailkaturik zegoen, baina jadanik garapen dokumentu guztiak onarturik daude, urbanizazio lanak bukatzean daude eta eremuaren eraikuntza gehienak ere ia bukatuak daude.

Berrikuspen honetan, eremuaren mugapen aldaketa proposatzen da eraikigarritasun handipenik eman gabe.

Bere azalera, gutxi gorabehera 47.069 m²-koa da.

b) Sailkapena:


Hiri lurra

c) Kalifikazio orokorra:

Industrialia

d) Helburuak

1995eko martxoaren 28an Diputatuen Kontseiluak behin betikoz onartutako Plan Partzialaren arabera ordenazioa gauzatzea. Eremu honen garapenak Lizartzako herriarentzat garrantzia berezia du. Arau Berrikuspen honetan

 LIZARTZAKO UDALA	LIZARTZAKO ARAU SUBSIDIARIOEN BERRIKUSPENA- TESTU BATERATUA-		
	2007KO OTSAILA	A.7	

eremuaren mugapenaren aldaketa proposatzen da, aprobetxamenduaren handipenik gabe. Aldaketa hau egun eremuan dauden enpresen beharrak kontutan hartuta proposatu da. Era berean, eremuko lagapeneko espazio eta zuzkidura publikoak era egokiagoan antolatzeko helburua du mugapen berriak.

e) Erabilera eta eraikuntza baldintzak

1995eko martxoaren 28an Diputatuen Kontseiluak behin betikoz onartutako Plan Partzialean definitutakoak.


Baldintza nagusienak ondorengoak dira:

- Partzela industrialak: 26.049 m²
- Lurzoruaren gehieneko okupazioa: 16.987 m²
- Gehieneko azalera tarteko solairuan(20%). 3.397,44 m²
- Gehieneko azalera eraikia: 20.384,44 m²
- Eremu Berde publikoak: 4.677 m²
- Komertzio, Gizarte eta kirol ekipamenduak: 2.433 m²
- Haraztegirako gunea : 652 m²
- Eraikitako 100 m² bakoitzeko aparkaleku bat egokitu beharko da
- Eraikuntzaren gehieneko altuera: 10,00 m

f) Urbanizazio baldintzak

Udalak onartutako Urbanizazio Proiektuan jasotakoak.

Ibai ertzean birurbanizazio lanak burutu behar balira, ingurumenaren lehengoratzea bermatu beharko da, Araxes ibaia eta hari lotutako bertako

 LIZARTZAKO UDALA	LIZARTZAKO ARAU SUBSIDIARIOEN BERRIKUSPENA- TESTU BATERATUA-		
	2007KO OTSAILA	A.7	

landareriaren funtzio zuzentzailea mantendu, lehengoratu eta sustatzeko neurriak hartuz, lurraldeak espezien fluxua izan dezan laguntzeko.

. Birlandaketak burutzerakoan bertako zuhaitz eta landaretza erabiliko da, landare inbasiboen erabilera saihestuz.

. Ibai ertza berreskuratzerakoan, ezpondak egonkortzeko eta lurrazala drainatzeko, ingeniaritza biologikoko teknikak edo teknika malguak erabiliko dira, paisaia hobeto egokitzen direlako.

. Obrak burutzerakoan, araudi orokorreko bigarren liburuko bigarren kapitulua, ingurumenaren babeserako aurreikusitako neurriak, kontutan hartu beharko da.

g) Jardute baldintzak:

Jardute sistema konpentsazioa da. Konpentsazio Proiektua jadanik onarturik dago.